

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Urez hornitzearen, estolderiaren eta zaborra biltzeko zerbitzuaren 2016ko bigarren seihilekoko tasak ordaindu behar dituztenen erroldak jendaurrean jartzea eta tasa horiek kobratzea

Urez hornitzeagatik, estolderiarengatik eta zaborra biltzekozerbitzuarengatik 2016ko bigarren seihilekoko tasak ordaindu behar dituztenen errolda egin denez gero, jendaurrean jarriko da 15 egunez. Halaber, iragarki honen bidez, erroldaren barruko likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 98.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Jendaurrean jarriko den erroldan jasotako likidazioen aurka berraztertzeoerrekurtsua jarri ahal izango zaio alkate-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsua, edo epe hori amaitu eta hurrengo egunetik aurrera hilabete igaro baino lehen.

Zerga norberaren borondatez ordaintzeko araututako epea 2017ko otsailaren 1etik martxoaren 31ra bitartekoa (biak barne) izango da, eta martxoaren azken egunean kobratuko dira helbideraturiko ordainagiriak.

Tasa horiek ordaindu beharra izanik ordainketa horiek inongo banketxetan helbideratuta ez dituztenek Kutxabanken edo Banco Popular bankuaren edozein bulegotan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak. Horretarako, beharrezkoa izango da etxean jasoko duten ordainagiri abisua aurkeztea. Abisurik jaso ezean, udal bulegoetan eskatu beharko da.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte prozedurari emango zaio hasiera ordaindu gabeko kuotak kobratzeko, hala xedatzen baitute Zergen Foru Arau Orokorrak eta Dirubilketa Arautegi Orokorrak, eta dagokion errekararekin (ehuneko 10 edo ehuneko 20) kobratuko dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Murgia, 2017ko otsailaren 1a

Alkate-lehendakaria
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA